



# Lan Harremanen Unibertsitate Eskolako Aldizkaria

14. alea, 2011ko abendua



Lan Harremanen U.E.  
E.U. de Relaciones Laborales  
The University College of Labour Relations

## AURKIBIDEA

AURKEZPENA.....	2
IRAKASLEAK, IKERTZAILEAK ETA ADMINISTRAZIO ETA ZERBITZUETAKO LANGILEAK.....	2
ESKOLAREN POLITIKA ETA ESTRATEGIA.....	2
BALIABIDEAK .....	3
ALIA NTZAK .....	4
IKASLEAK.....	5
ESKOLAK ANTOLATU EDO BERMATUTAKO JARDUERAK .....	5
INTERESEKO AKORDIO ETA ERABAKIAK .....	6
BALIABIDE ETA AIPAMEN INTERESGARRIAK.....	14

[Para acceder al contenido en Castellano, pulsa aquí.](#)



Lan Harremanen U.E.  
E.U. de Relaciones Laborales



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea

---

## AURKEZPENA

---

Gainditu dugu ikasturtearen lehenengo hiruhilabetea eta, azkenean, AUDIT ziurtagiria lortu dugula jakinarazi nahi dizuegu. Gabonetako oporren ostean lehenengo lauhilabetea burutuko duen azterketa-aldian sartuko gara buru belarri. Animo guztioi! Ikasturtearen lehenengo zati honetan hainbat jardunaldi ospatu da Eskolan. Bestetik, Zuzendaritza gure aliantzak indartzen saiatu da. Ospatu diren hauteskundeei buruzko informazioa ere ematen dugu. Irakasleriak eta administrazio eta zerbitzuetako langileriak unibertsitateko klaustroaren osaketa berrian parte hartu du, ikasleriak bezala. Honek, gainera, Eskola Batzarrerako ordezkari berriak hautatu ditu. Zuzendaritzatik urte berri ona opa nahi dizuegu.

**Aldizkari hau idazterakoan sexuen arteko berdintasuna gordetzen saiatu gara.**

Argitaratzeko zerbait bidali nahi baduzu egizu helbide honetara ([nieves.arrese@ehu.es](mailto:nieves.arrese@ehu.es)).

---

## IRAKASLEAK, IKERTZAILEAK ETA ADMINISTRAZIO ETA ZERBITZUETAKO LANGILEAK

---

**Klaustorako hauteskundeak:** Pasa den azaroaren 22an UPV/EHUko Klaustorako hauteskundeak ospatu ziren. UPV/EHUko Estatutu berriekin bat, Klaustroa 243 kidek osatzen dute, horietatik 3 karguagatikoak, errektorea, idazkari orokorra eta gerentea. Beste kideak era honetan banatzen dira: lotura iraunkorra duten irakasle eta ikertzaile doktoreen 135 ordezkari, lotura iraunkorra duten irakasle eta ikertzaile ez doktoreen 18 ordezkari, bestelako irakasleen 4 ordezkari, ikasleriaren 53 ordezkari eta administrazio eta zerbitzuetako langileen 29 ordezkari. Ospatutako hauteskundeetan 4 postu gelditu dira bete gabe, 1 lotura iraunkorra duten irakasle doktoreei dagokiena eta beste 3 ikasleriarena. Eskolan Mercedes Arbaiza atera da lotura iraunkorra duten irakasle eta ikertzaile doktoreen ordezkari gisa.

**Unibertsitateko irakasle-gorputzeko funtzionario plazen lehiaketa:** Abenduaren 1 eta 2an Konstituzio Zuzenbidea eta Politika Pentsamenduaren eta Gizarte Mugimenduen Historia Sailean, Konstituzio Zuzenbidea jakintza-arloan ospatutako lehiaketaren arabera, Leire Escajedo irakasleari esleitu zitzaion plaza. Plaza hau Lan Harremanen Unibertsitate Eskolari dago atxikirik. Zorionak!

---

## ESKOLAREN POLITIKA ETA ESTRATEGIA

---



**AUDIT ziurtagiria:** ANECA-k eta UNIBASQ-ek ziurtatu egin dute Lan Harremanen Unibertsitate Eskolan ematen diren gradu-ikasketa ofizialetan aplikatzen den Kalitatearen Barne Bermeko Sistemaren diseinua ebaluatu egin dela eta AUDIT unibertsitate-prestakuntzaren Kalitatearen Barne Bermeko Sistemak Diseinatu eta Garatzeko Programaren barruan indarrean dauden agirietan ezarritako arau eta ildoekin bat datorrela. Ziurtagiriaren jaulkitze-data 2011ko uztailaren 11a da eta 2014ko uztailaren 1a arteko balioa du.

[http://www.lan-harremanak.ehu.es/p231-content/es/contenidos/informacion/rrll\\_calidad/es\\_calidad/adjuntos/certificado\\_audit.pdf](http://www.lan-harremanak.ehu.es/p231-content/es/contenidos/informacion/rrll_calidad/es_calidad/adjuntos/certificado_audit.pdf).

**Eskolako Kalitate Batzordearen Erregelamendua:** Lan Harremanen Unibertsitate Eskolako Kalitate Batzordearen Erregelamendua 2011ko azaroaren 21eko Euskal Autonomia Erkidegoko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen. Aldizkari honen aurreko zenbakian adierazi zen bezala, bere helburua Eskolako Kalitate Batzordearen egitura, osaketa eta funtzioak zehaztea da, organo hori baita Lan Harreman eta Giza Baliabideetako Graduaren titulurako Kalitatearen Barne Bermeko Sistemaren erantzulea. Arauaren eduki osoa ezagutu ahal izateko, [http://www.euskadi.net/cgi-bin\\_k54/bopv\\_42?c&f=20111121&a=201105640](http://www.euskadi.net/cgi-bin_k54/bopv_42?c&f=20111121&a=201105640).

**Ikastegietako Erregelamendu Markoa:** UPV/EHUko Gobernu Kontseiluak, abenduaren 22an ospatutako saioan, Ikastegietako Erregelamendu Markoa onartzeko prozedura irekitzea erabaki zuen. Horretarako abiapuntua saioan bertan aurkeztutako proiektua izango da, eta 2012ko urtarrilaren 27a arte emendakinak aurkezteko epea irekirik egongo da. Araua behin betikoz onartzen denean, ikastegi guztiek euren Erregelamenduak han ezarritakora egokitu beharko dituzte. I. Tituluan aplikazio-eremua, erregimen juridikoa, osaketa eta eskumenak jasotzen dira. II. Tituluko artikulua (Ikastegietako gobernu-organoak, ordezkaritza eta aholkularitza) bost Kapituluatan banatzen dira (Xedapen orokorrak,

Pertsona anitzeko organoak -Batzarra eta Batzordeak-, Pertsona bakarreko organoak, Erregimen ekonomikoa eta administrazio-erregimena eta Kalitatea). Berrikuntzarik aipagarriena dekanotza eta zuzendaritza taldeen osaketari dagokio, dekanorde eta zuzendariordeen zenbakiaren zehaztapena Eranskinean jasotzen diren irizpide eta prozedurekin bat egingo da eta. 1. irizpideak ikasleen kopurua hartzen du aintzat (1etik 1.000 arte: dekanorde edo zuzendariorde 1; 1.001etik eta 2.000 arte: 2 dekanorde o zuzendariorde; 2.001etik gora: 3 dekanorde edo zuzendariorde). 2. irizpidearen arabera, ikastegiak eskaintzen dituen titulazio zenbakia izan behar da kontuan (3tik 5era: dekanorde edo zuzendariorde 1; 6 edo gehiago: 2 dekanorde o zuzendariorde). 3. irizpideak dekanorde edo zuzendariorde 1 esleitzen die nazioarteko mugikortasun programetan 50 ikasle baino gehiago dituzten ikastegiei. Gure Ikastegiaren errealitatea begiratzuz, 1. irizpidearekin bat zuzendariorde bat izango genuke eta 2.enari dagokionez, titulazioz zer ulertu behar den argitu behar da: Ikastegiak eskaintzen duen edozein edo gradu mailakoak soilik. Horren arabera, zuzendariorde bat gehiago lor genezake, edo bat ere ez. Edonola, zuzendariordetzen murrizketa aurreikusten dela argi dago, egun hiru baititugu. Egoera honek okerrera egingo luke ez-egote, gaixotasun eta, oro har, dekanotza edo zuzendaritzako kideren batek justifikatutako arrazoiren bat izango balu lanera denbora batez ez joateko, bere karguari dagozkion funtzioak dekanok eta zuzendariak, taldeko kideen artetik aukeratzen duenak bete beharko baititu.

**Eskola Batzarra:** Abenduaren 22an ospatutako Eskola Batzarrean zuzendariak ikasturteari dagozkion berrikuntza garrantzitsuenei buruzko informazioa luzatu zuen, besteak beste, Gradu Amaierako Lanak, baliozkotzeak, praktikak, titulazio tutoretzak, mugikortasuna, ordezkarien hautaketa, Ikastegiko zerbitzu berrien erabilera eta hainbat Batzordek egindako bilerak. Era berean, 2011/2012 ikasturteko kudeaketa plana aurkeztu zen. Batzarrak hartutako erabakiak bi izan ziren nagusiki. Batetik, Bakea eta Duintasunarekin dugun Hitzarmena luzatzeko eskaria egitea. Bestetik, Ikastegiko Batzordeetan aldaketa batzuk sartzea. Irakasleriari dagokionez, Elisabete Errandonea eta Nieves Arrese Kalitate Batzordeko kide berri dira. Ikasleriaren kasuan, Ikasleen Kontseilu berria eratu denez, Batzorde batzuetako ordezkartza aldatu egiten da. Zehazki, Ebaluazio Berezirako Epaimahaian ikasleen ordezkaria Borja Guerra izango da; Ekonomia Batzordean, Oihane Aguado; Irakasleak Ebaluatu eta Kontrolatzeko Batzordean, Iker Ordeñana; Kalitate Batzordean, Borja Guerra; Komunikazio Batzordean, Javier Etxeberria; eta Euskara Batzordean, Iker Ordeñana.

---

## BALIABIDEAK


---

**2012ko aurrekontua:** Errektoregotik jakinarazi berri digutenez 2012ko aurrekontuan ikastegien artean banatuko den diru kopurua %10ean murriztuko da. Arrazoiak da Eusko Jaurlaritzak aurrekontu murrizketak egin dituela 2011/2014 aldirako Unibertsitate Planean agertzen den ohiko finantziazioan. Murrizketa honen ondorioz, Eskolak urteko gastua ajustatu beharko du, horretara bideratuko diren erabakiak hartuz. Hartutako lehenengo neurria fotokopia eta inprimagailuen erabilerari buruzkoa da. Urte askotan zehar Eskolak bere gain hartu ditu irakasleek egindako era honetako gastuak, horiek sailek ordaindu behar badituzte ere irakaskuntzari lotutako kostuak baitira. Hurrengo asteetan irakasleen gelako inprimagailuetan mekanismo bat jarriko da, zeinaren bidez gastua eragiten duen saila identifikatzea posible izango den bertara dagozkion faktura bidaltzeko xedearekin.

**Sabaiko argi-zuloa:** Abenduaren 17 eta 18an gure lurraldean pairatu genuen haize indartsuen eraginez, berriro ere Ikastegiko hirugarren solairuko argi-zuloa osatzen duten hiru kristal apurtu dira.



**Kantabriako Zuzenbide Fakultateko Dekanotza taldearekin bilerak:** Azaroaren 2an Eskolako Zuzendaritza taldeak Santanderrera bidaiatu zuen bertako Zuzenbide Fakultateko Dekanotza taldearekin biltzeko. Taldeko kide dira Juan Baró (dekanoa), José Carlos de Pablo (akademia antolakuntzako dekanordea), David Lantarón (planifikazio eta berrikuntzarako dekanordea), María Amparo Renedo (ikasketa plan eta graduondokoen dekanordea) eta Francisco Javier Barcelona (kalitate dekanordea). Ikastegi honetan, Zuzenbideko titulazioaz gain (lizentziatura eta gradua), Lan Harremanen Gradua (eta Lizentziatura) ere eskaintzen dira. Abenduaren 1ean Fakultateko Dekanotza taldea gurera hurbildu zen. Bilera hauei buruzko balorazioa oso positiboa da, gurearen parekoa den titulazio batekin sare egiteko aukera eskaini baitigute. Honi esker, elkarrekin proiektuak aurrera ateratzea aurreikusi da, bereziki, mugikortasunaren eremuan eta ekitaldiak elkarrekin antolatzean.



**Lan Ekintza:** Azaroaren 25ean Lan Ekintza Bilbao, S.A. eta UPV/EHUK sinatutako Hitzarmenaren baitan Jarraipen Batzordearen bilera ospatu zen. Lan Ekintzaren aldetik, Batzordeko idazkaria, Juan Félix Madariaga bertaratu zen, eta UPV/EHUKen izenean, Batzordearen lehendakaria den Ángel Elías eta 1. bozeramailea, Nieves Arrese. Bilera hiru ardatzen inguruan jorratu zen: berrikuntzak, Hitzarmenaren balorazioa eta proposamenak. Berrikuntzei dagokienez, Lan Ekintzaren ordezkarietatik erakundean ematen ari den berrantolatze prozesu garrantzitsuari buruzko informazioa eman zen, udal mailako beste antolaketa batean sartu baita. Honetan, xede nagusiak, enplegua eta sustapenez gain, merkataritza, gertaera handien antolaketa, nazioartekotasuna eta turismoa dira. Hitzarmenaren balorazioa positiboa da, aurreikusitako jarduerak aurrera atera baitira, bereziki, *Lan Harremanak* aldizkariaren zenbakien argitalpena, hala nola, Lan Harremanen Unibertsitate Eskolako bi ikaslek burututako praktikak. Hauentzat, gainera, esperientzia Gradu Amaierako Lana egiteko baliagarria izan da. Proposamenen eremuan, egoera ekonomiko zaila eta *Lan Harremanak* aldizkariaren hurrengo zenbakiak formatu digitalean aterako direla aintzat hartuz, bi alderdiek 2012tik aurrera Lan Ekintzak orain arte eman duen diru laguntza ematen ez jarraitzea adostu zuten. Bestetik, 2012ko Asta Santua aurretik gure Ikastegian lan irteerei buruzko hitzaldia antolatzea proposatzen da. Bertan Lan Ekintzako ordezkari batek parte hartuko luke. Gainera, elkar ezagutza eta elkarrekin egin daitezkeen jardura aukerak bultzatzearen, aurrez zehazturiko gai zerrendarekin bat, 2012ko maiatzean UPV/EHUKo irakasleriaren eta Lan Ekintzako langileen arteko topaketa bat antolatzea ere adostu zen.

**Bakea eta Duintasuna:** Abenduaren 22an ospatutako Eskola Batzarrean UPV/EHUK eta Bakea eta Duintasuna Elkartek 2008an Amerika Latinan lan egiten duten Multinazionalen Behategia garatzeko sinatutako Hitzarmenaren luzapena eskatzea adostu zen. Behategi hau 2003an sortu zen Amerika Latinan inbertsioak egiten dituzten multinazionalen jarraipena egiteko asmoarekin. Hitzarmena, Lan Harremanen Unibertsitate Eskolaren bidez jardungo duen UPV/EHU eta aipatu elkartearen arteko lankidetzarako pausua da, bai behaketarako baliabideen diseinuan, bai eta prestakuntza espezializaturako jardueren egikaritzan ere. Amerika Latinan lan egiten duten Multinazionalen Behategiaren garapenak bere baitan hartzen du hainbat jardura. Besteak beste, Amerika Latinan jarduten duten multinazionalen presentziari lotutako ondorioei buruzko informazio eta adierazle eguneratuak jasotzen dituen web orri bat mantentzea ([www.omal.info](http://www.omal.info)); giza eskubideen, jaioterriko eskubideen, emakumeen eta Amerika Latinako gizarteetako egoera sozio-ekonomiko eta ingurumenean energia arloko espainiar multinazionalen eraginari buruzko urteroko ikerkuntza; Amerika Latinan aipatu enpresen korporazio gizarte erantzukizun politikei buruz Lan Harremanen Unibertsitate Eskolak editatzen duen *Lan Harremanak* aldizkariaren zenbaki monografiko baten edizioa; bi urtero, UPV/EHUKo Hegoa Institutuarekin batera, multinazional eta korporazio gizarte erantzukizunari buruzko kongresu espezializatua egitea; eta, azkenik, urtero, UPV/EHUKo Garapenerako Lankidetzak Bulegoarekin batera, “*Globalizazio, Lan Harremanak eta Gizarte Klausula*” gaiaren inguruko ikastaro espezializatua egitea. Amerika Latinan lan egiten



duten Multinazionalen Behategiak lortutako informazioak oso erabilgarriak izan daitezke UPV/EHUko irakasleria eta ikasleriak, zein GKE eta sindikatuek, gure lurraldean kokatutako enpresa multinazionalen politikak Hegoaldeko herrietan dituzten ondorioei buruzko ezagutza eta ikuspuntuak aberasteko. Egitate hau Iparaldeko eta Hegoaldeko Estatuetako lan-eskubideetan globalizazioak dituen eraginaren analisi eta errealitate hauen arteko harremanetan kokatu behar da.

## IKASLEAK



**Mugikortasuna:** Akordio akademikoak sinatzeko prozedura amaitu eta gero, aurrean gure artean dauden lau Erasmus ikasleek (Antoine de la Mardière, Clémence Rannou, Leo Ruellan eta Thomas Daniel) bizitzen ari diren esperientziari buruzko inpresioak gureganatzea nahi izan dute. Euren ikasketak burutzeko gure Ikastegia aukeratu izanaren arrazoiaren artean Euskal Herria ezagutzea, esperientzia berri bat bizitzea eta hizkuntza ikastea nabarmendu dute. Ohiko ikasketa ikastegiaren eta gurearen arteko ezberdintasunak anitzak omen dira. Besteak beste, honako hauek adierazten

dizkigute: ikasleriaren eta irakasleriaren arteko gertutasuna, eskolak jorratzeko era ezberdina, lan asko gelan bertan egiten direla, azterketa gehienetan galderak erantzun behar direla eta ez dela gogoetarik eskatzen, etab. Guztiek azpimarratzen dute Eskolaren antolaketa hobea, bereziki, Idazkaritzakoa. Integrazio arazorik ez dutela izan jakinarazi digute guztiek ongi etorria eman baitiete, bai ikasleriak, bai eta irakasleriak ere. Guztiek laguntzeko adierazi duten borondatea nabarmen izan dute. Beraz, gure Erasmus ikasleak oso pozik daude bizitzen ari diren esperientziarekin eta guztiei gomendatzen diete.

Bestetik, 2012ko urtarrilaren 30ean irekiko da 2012/2013 SICUE Programarako eskaerak aurkezteko epea. Informazioa helbide honetan dago eskuragarri: [http://www.relaciones-internacionales.ehu.es/p274-content/es/contenidos/informacion/rrii\\_sicue\\_alumnado\\_upv/es\\_1213/sicue\\_indice.html](http://www.relaciones-internacionales.ehu.es/p274-content/es/contenidos/informacion/rrii_sicue_alumnado_upv/es_1213/sicue_indice.html).



**Ikasleen Kontseilu berria:** Talde bakoitzean egin den ordezkarien hautaketak, batetik, eta ikasleen artean Klaustorako eta Eskola Batzarrerako ordezkariak aukeratzeko azaroaren 22an ospatutako hauteskundeek, bestetik, Eskolako Ikasleen Kontseiluaren berrikuntza ekarri dute. Aipatu organoko kide dira, talde bakoitzeko ordezkari direnez

gain, batetik, Klaustroan Eskolako ikasleriaren ordezkari hautatua izan den María Guiomar García Seijas, eta bestetik, Eskolako batzarkide diren Oihane Aguado Bueno, Koldobika Mikel González Díaz, Laura María Fernández Tamayo, Borja Guerra Alcalde, Zuriñe Suso García eta Iker Ordeñana Olalde. Ordezkari hauen guztien artean Ikasleen Kontseiluaren lehendakaritza, “Liberta – Ikasleen ahotsa” Elkarteak aurkeztutako hautagai zerrendak hartu du eta era honetan banatu dituzte dagozkion ardurak: Oihane Aguado Bueno (lehendakaria), Borja Guerra Alcalde (lehendakariordea), Laura María Fernández Tamayo (idazkaria) eta Koldobika Mikel González Díaz (diruzaina).

**Gradu Amaierako Lanak:** Azaroan 2010/2011 ikasturteko Gradu Amaierako Lanen defentsaren prozesua burutu zen. Defentsa egin zuten lau pertsonen balorazioa, honetan ere, positiboa izan da, lortutako notak 6.5, 8.0, 6.5 eta 6.1 izan baitira. 2011/2012 ikasturteari dagokionez, 37 pertsona matrikulatu dira. Hala ere, sek ez dituzte kredituen betekizunak betetzen. Gainontzeko kasuetan, 21ek dagoeneko aukeratu dute gaia. Momentuz gairik ez duten beste 11 pertsonak, 2012ko urtarrilaren 13a arte dute aske gelditzen diren gairen bat aukeratzeko edo irakasleren batekin ados berri bat proposatzeko.

## ESKOLAK ANTOLATU EDO BERMATUTAKO JARDUERAK

**Jaioterriko gutxiengoaren eskubideak, Alaskako kasua / The rights of Alaska native minorities:** Alaska Anchorage Unibertsitateko Raymond Anthony irakasleak azaroaren 16an jaioterriko gutxiengoaren eskubideei buruzko hitzaldia eman zuen Eskolan. Alaskako zazpi elkarte indigena ugariak 229 tributan antolatzen dira eta, arbasoen lurak okupaturik egon badira ere, 10.000 urtez garatutako hizkuntza eta kultura gordetzen dituzte. Kultura hauek, zeinetan

basa jatorria duten elikadurak lortzea oraindik ere ematen den, hezkuntza eta ezagutzeko eredu praktiko sofistikuak garatu dituzte. Hauek mendebaldeko unibertsitateetan oso ezberdinak dira. Alaska Anchorage eta Alaska Pacific Unibertsitateek jaioterriko elkarleen eta akademia elkarlearen arteko hezkuntza-lankidetzak sendotzeko konpromisoa hartu dute. Estrategia honen oinarritzko elementua *“Alaska Native Ways of Teaching and Key difficult dialogues between Alaska Native communities and western universities”* proiektua da. Raymond Anthony irakaslea programa honetan era aktiboan parte hartzen duen irakasleetako bat da.

**Sindikatuaren eta enpresaburu elkarleen parte hartzea enplegu politikaren diseinuan:** flexiguritate akordioak: Abenduaren 16an, II. Ikasgelategiko Rosetoian, Parte Hartuz Ikerketa Talde Kontsolidatuaren ekimenaren baitan kokaturik flexiguritateari buruzko jardunaldia ospatu zen. Antolatzaileak Aitor Bengoetxea (Lanaren eta Gizarte Segurantzaren Zuzenbideko irakaslea) eta M<sup>a</sup> Luz de la Cal (Ekonomia Aplikatua leko irakaslea) izan ziren. Jardunaldiotan aipatu irakasleek gizarte elkarriketaren eragina flexiguritateko akordioei buruz hitz egin zuten. Hauez gain, Joseba Villarreal eta Nerea Zamakola, ELAko eta ADEGiko negoziazio kolektiboaren arduradunek ere parte hartu zuten. Hauek lan harremanetan flexiguritateko akordioak bultzatzeko aukera eta oztopoei buruz hitz egin zuten. Jardunaldia plazaratutako gaiari buruzko eztabaidarekin amaitu zen.

---

## INTERESEKO AKORDIO ETA ERABAKIAK

---

228/2011 Dekretua, azaroaren 8koa, Unibasq Unibertsitate Sistemaren Kalitatea Ebaluatu eta Egiaztatzeko Agentziak Euskal Herriko Unibertsitateko irakasle eta ikertzaile kontratatuak eta unibertsitate pribatuak irakasleak Euskal Unibertsitate Sistemaren otsailaren 25eko 3/2004 Legeak ezarritakoaren arabera ebaluatzen eta egiaztatzeko erabiltzen dituen irizpideak onartzen dituenak:

[http://www.euskadi.net/cgi-bin\\_k54/bopv\\_42?e&f=20111121&a=201105639](http://www.euskadi.net/cgi-bin_k54/bopv_42?e&f=20111121&a=201105639)

1707/2011 Errege Dekretua, azaroaren 18koa, unibertsitateko ikasleek kanpoan egiten dituzten praktika akademikoak arautzen dituenak:

<http://www.boe.es/boe/dias/2011/12/10/pdfs/BOE-A-2011-19362.pdf>

2011ko azaroaren 30eko Ebazpena, Unibertsitateetako Idazkari Orokorrarena, Ikerkuntza Jarduera Ebaluatzen Batzorde Nazionalaren aurrean ikerkuntza jarduera ebaluatzen prozedura eta eskarien aurkezpenerako epea ezartzen dituenak:

<http://www.boe.es/boe/dias/2011/12/12/pdfs/BOE-A-2011-19424.pdf>

**Europar enpresetan praktikak egiteko 2011/2012 Erasmus bekak:** Confebaskek, UPV/EHurekin batera, 2011/2012 ikasturterako abian jarri du *“Eurolanen Erasmus 2011”* proiektua. Honen helburua UPV/EHuko ikasleak izanik, ikasturte honetan Europako edozein Estatuko enpresaren batean praktikak egin ditzaten laguntza eskaintzea da. Deialdiari buruzko informazio zehatza lortu ahal izateko, <http://formacion.confebask.es/Corporativa/Default.aspx>.

**“La Caixa” beken deialdia, 2012ko edizioa:** Beka hauen helburua ikasleen mugikortasuna areagotzea da. Edizio honetan 222 beka eskaintzen dira: 100 Estatuko unibertsitateetan masterrak egiteko, 65 Europar Estatuetan graduondoko ikasketak egiteko, 45 Estatu Batuetan graduondoko ikasketak egiteko, 5 Kanadan graduondoko ikasketak egiteko eta 7 Asiako Estatuetan graduondoko ikasketak egiteko. Informazio gehiagorako, [http://obrasocial.lacaixa.es/ambitos/becas/becas\\_es.html](http://obrasocial.lacaixa.es/ambitos/becas/becas_es.html).

**Francisco Javier de Landaburu, Universitas 2012, XI. Ikerketa Saria:** Eurobask-ek, Europako Mugimenduaren Euskal Kontseiluak, Francisco Javier de Landaburu sariaren edizio berrirako deialdia ireki du, banaka edo ikerketa talde baten barruan dauden Unibertsitateko lizentziadun edo goi tituludunentzat. Edizio honetarako proposatutako gaia *“Eurogunearen etorkizuna, ekonomia gobernantza eta gizarte erantzuna: krisiarentzako europar irtenbideak”* da. Lana ikerketa proiektu bat izango da. Sarituz gero, saiakera gisa garatu beharko da. Garatutako artikulua gutxienez 25 orrialde izan beharko ditu, eta gehienez 50. Lehen saria, 4.000 €koa, ikerketa proiekturik onenari emango saio. Horrez gain, 2.000 €ko bi accésit ere emango dira epaimahaiak hautaturiko bi ikerketa proiektuetarako. Aurkezteko epea 2012ko martxoaren 19ko 18:00etan amaitzen da. Deialdiaren informazio osoa lortzeko, <http://eurobask.org/ficherosFTP/Premios/Universitas/Bases/UNIVERSITAS%202012.pdf>.



# Boletín de la Escuela Universitaria de Relaciones Laborales

Número 14, diciembre 2011



Lan Harremanen U.E.  
E.U. de Relaciones Laborales  
The University College of Labour Relations

## ÍNDICE

PRESENTACIÓN .....	8
PERSONAL DOCENTE E INVESTIGADOR Y DE ADMINISTRACIÓN Y SERVICIOS.....	8
POLÍTICA Y ESTRATEGIA DE LA ESCUELA .....	8
RECURSOS.....	9
ALIANZAS .....	10
ALUMNADO .....	11
ACTIVIDADES ORGANIZADAS O AVALADAS POR LA ESCUELA .....	12
ACUERDOS Y DECISIONES DE INTERÉS.....	12
RECURSOS Y RESEÑAS DE INTERÉS.....	14

[Euskerako edukira joateko klikatu hemen](#)



Lan Harremanen U.E.  
E.U. de Relaciones Laborales



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea

---

## PRESENTACIÓN

---

Ya hemos superado el primer trimestre del curso y queremos haceros partícipes de que, por fin hemos obtenido el certificado AUDIT. Tras las vacaciones de navidad nos veremos inmersas/os en los exámenes que pondrán fin al primer cuatrimestre. ¡Ánimo a todas/os! En esta primera etapa del curso se han celebrado distintas jornadas en el Centro. La dirección, por su parte, ha trabajado en la labor de reforzamiento de nuestras alianzas. También damos cuenta de las elecciones que se han celebrado. El profesorado y el personal de administración y servicios han tenido ocasión de participar en la nueva configuración del Claustro universitario, así como el alumnado que, además, ha elegido a sus nuevos representantes en la Junta de Centro. Desde dirección queremos desearos a todas/os un feliz año nuevo.

[En la redacción de este boletín hemos tratado evitar el lenguaje sexista.](#)

Si quieres enviar algo para que sea publicado envíalo aquí ([nieves.arrese@ehu.es](mailto:nieves.arrese@ehu.es)).

---

## PERSONAL DOCENTE E INVESTIGADOR Y DE ADMINISTRACIÓN Y SERVICIOS

---

**Elecciones a Claustro:** El pasado 22 de noviembre se celebraron las elecciones a Claustro de la UPV/EHU. De acuerdo con los nuevos Estatutos de la UPV/EHU, el Claustro lo componen 243 miembros. 3 de ellos son natos, el rector, la secretaria general y el gerente. El resto de miembros se dividen de la siguiente manera: 135 representantes del profesorado doctor con vinculación permanente, 18 del profesorado no doctor con vinculación permanente, 4 del otro personal docente e investigador, 53 del alumnado y 29 del personal de administración y servicios. Del resultado de las elecciones celebradas, han quedado vacantes 4 puestos, 1 correspondiente al profesorado doctor permanente y 3 al alumnado. Por la Escuela resultó elegida la profesora Mercedes Arbaiza en el estamento de profesorado doctor con vinculación permanente.

**Concurso de acceso a plazas de funcionarios de cuerpos docentes universitarios:** Tras el concurso celebrado los días 1 y 2 de diciembre, se adjudicó la plaza de profesora titular de Universidad en el Departamento de Derecho Constitucional e Historia del Pensamiento y de los Movimientos Sociales y Políticos, área de conocimiento de Derecho Constitucional, a la profesora Leire Escajedo. Esta plaza está adscrita a la E.U. de Relaciones Laborales. Zorionak!

---

## POLÍTICA Y ESTRATEGIA DE LA ESCUELA

---



**Certificado AUDIT:** La ANECA y UNIBASQ han certificado que el diseño del Sistema de Garantía Interna de Calidad aplicable a las enseñanzas oficiales de grado impartidas en la E.U. de Relaciones Laborales ha sido evaluado y encontrado conforme con las normas y directrices establecidas en la documentación vigente

del Programa AUDIT para el diseño y desarrollo de Sistemas de Garantía Interna de Calidad de la formación universitaria. La fecha de emisión del certificado es de 7 de julio de 2011 y su validez se extiende hasta el 1 de julio de 2014.

[http://www.lan-harremanak.ehu.es/p231-content/es/contenidos/informacion/rll\\_calidad/es\\_calidad/adjuntos/certificado\\_audit.pdf](http://www.lan-harremanak.ehu.es/p231-content/es/contenidos/informacion/rll_calidad/es_calidad/adjuntos/certificado_audit.pdf).

**Reglamento de la Comisión de Calidad del Centro:** El BOPV de 21 de noviembre de 2011 publicó el Reglamento de la Comisión de Calidad de la E.U. de Relaciones Laborales. Tal y como se informó en el número anterior del Boletín, su objeto es establecer la estructura, composición y funciones de la Comisión de Calidad de la Escuela, como órgano responsable del Sistema de Garantía Interna de Calidad (SGIC) para el título de Grado en Relaciones Laborales y Recursos Humanos. Para conocer en detalle el contenido de la norma, [http://www.euskadi.net/cgi-bin\\_k54/bopv\\_42?c&f=20111121&a=201105640](http://www.euskadi.net/cgi-bin_k54/bopv_42?c&f=20111121&a=201105640).

**Reglamento Marco de Centros:** El Consejo de Gobierno de la UPV/EHU, en su sesión de 22 de diciembre, aprobó iniciar el procedimiento para la elaboración del Reglamento Marco de Centros, a partir del proyecto presentado a dicha sesión. El plazo para la presentación de enmiendas concluye el 27 de enero de 2012. La aprobación definitiva de esta norma va a obligar a todos los centros docentes a adecuar sus propios Reglamentos a las disposiciones allí recogidas. El Título I se refiere al ámbito de aplicación, régimen jurídico, composición y competencias. Los artículos del Título



II (Órganos de gobierno, representación y asesoramiento de los centros docentes) se dividen en cinco Capítulos (Disposiciones generales, Órganos colegiados -Junta de Centro y Comisiones-, Órganos unipersonales, Régimen económico y administrativo y Calidad). La novedad más reseñable hace referencia a la composición de los equipos decanales o de dirección, ya que la determinación del número de vicedecanatos o subdirecciones, cuyos titulares formarán parte de los equipos directivos junto con decana/o o director/a y secretaria/o académica/o se realizaría conforme a los criterios y procedimientos determinados en el Anexo. El criterio 1º se refiere al número de estudiantes (desde 1 hasta 1.000: 1 Vicedecanato o Subdirección; entre 1.001 y 2.000: 2 Vicedecanatos o Subdirecciones; más de 2.001: 3 Vicedecanatos o Subdirecciones). El criterio 2º atiende al número de titulaciones (de 3 a 5 titulaciones: 1 Vicedecanato o Subdirección; 6 o más titulaciones: 2 Vicedecanatos o Subdirecciones). El criterio 3º atribuye 1 Vicedecanato o Subdirección a aquellos centros que tuvieran a más de 50 estudiantes en programas de intercambio internacional. Atendiendo a la realidad de nuestro Centro, conforme al criterio 1º nos correspondería 1 Subdirección y conforme al 2º, dependiendo de si por titulación se entiende cualquiera que se imparta en el Centro o únicamente las de grado, obtendríamos 1 Subdirección más o ninguna. En cualquier caso, es evidente que se prevé una reducción de Subdirecciones, ya que en la actualidad contamos con 3. Esta situación se vería agravada por el hecho de que en caso de ausencia, enfermedad y, en general, cuando concurra impedimento temporal justificado de alguna o algún miembro del equipo decanal o de dirección, el ejercicio de las funciones que comprendan su cargo será desarrollado por quien o quienes designe el/la Decano/a o Director/a de entre los miembros del equipo.

**Junta de Centro:** En la Junta de Centro celebrada el 22 de diciembre el director informó sobre las novedades principales del curso, así Trabajos Fin de Grado, convalidaciones, prácticas, tutorías de titulación, movilidad, elección de delegadas/os, uso de los nuevos servicios del Centro y reuniones de las distintas Comisiones. Asimismo, se presentó el plan de gestión del curso 2011/2012. Las decisiones que se adoptaron en Junta fueron, principalmente, dos. De un lado, se aprobó la solicitud de prórroga del Convenio con Paz con Dignidad. De otro, se acordaron determinados cambios en las Comisiones del Centro. Por una parte, las profesoras Elisabete Errandonea y Nieves Arrese pasan a formar parte de la Comisión de Calidad. Por otra parte, la constitución del nuevo consejo de estudiantes ha supuesto la renovación de la representación estudiantil en algunas Comisiones. En concreto, Tribunal de Compensación, Borja Guerra; Comisión Económica, Oihane Aguado; Comisión de Evaluación y Control del Profesorado, Iker Ordeñana; Comisión de Calidad, Borja Guerra; Comisión de Comunicación, Javier Etxeberria; Comisión de Euskara, Iker Ordeñana.

---

## RECURSOS

---

**Presupuesto 2012:** Según se nos ha notificado recientemente desde el Rectorado, el presupuesto del ejercicio 2012 va a reducir en un 10% la cuantía total a repartir a los centros. Ello se debe a las restricciones presupuestarias aplicadas por el Gobierno Vasco en la aportación ordinaria prevista en el Plan Universitario 2011/2014. Esta limitación de recursos va a obligar al Centro a ajustar el gasto anual y a adoptar decisiones a tal fin. La primera medida que se ha adoptado se refiere al gasto de fotocopias e impresiones. Durante muchos años la Escuela se ha hecho cargo de dichos gastos ocasionados por el profesorado, aunque, en rigor, sean los departamentos quienes deban asumirlos por tratarse de costes de docencia. En las próximas semanas está previsto instalar un mecanismo en las impresoras de la sala de profesorado por el cual sea posible identificar el departamento que origina el gasto con el propósito de hacerle llegar la correspondiente factura.

**Claraboya:** El temporal de viento que azotó nuestro territorio el fin de semana del 17 y 18 de diciembre, ha vuelto a romper tres de los cristales que forman parte de la claraboya de la tercera planta del Centro.



**Reuniones con el equipo decanal de la Facultad de Derecho de Cantabria:** El 2 de noviembre el equipo directivo del Centro viajó a Santander y mantuvo una reunión con el equipo decanal de la Facultad de Derecho, compuesto por Juan Baró (decano), José Carlos de Pablo (vicedecano de ordenación académica), David Lantarón (vicedecano de planificación e innovación), María Amparo Renedo (vicedecana de planes de estudio y posgrado) y Francisco Javier Barcelona (vicedecano de calidad). En este centro, además de la titulación de Derecho (licenciatura y grado), también se imparte el Grado (y Diplomatura) en Relaciones Laborales. El 1 de diciembre, el equipo decanal de la Facultad devolvió la visita y se acercó al Centro en Leioa. Estas reuniones han resultado muy satisfactorias, porque han ofrecido la oportunidad de estrechar lazos con una titulación afín a la nuestra. En su virtud, está previsto emprender proyectos en común, especialmente, en los ámbitos de movilidad y de organización conjunta de actos.



